

IRAGARKIA

Osoko Bilkurak, 2014ko irailaren 4an eginiko ohiko saioan, **behin-behineko izaeraz onartu zuen ALEGRIA-DULANTZIKO NORDIC WALKING ZENTROAREN FUNTZIONAMENDU ARAUDIA.**

Jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, **behin betiko onartzen da**, honela idatzita:

ALEGRIA-DULANTZIKO NORDIC WALKING ZENTROAREN ARAUDIA

AURKIBIDEA

- Zioen adierazpena.
- Araudi orokorra.
 - Lehenengo titulua. Xedapen orokorrak.
 - Bigarren titulua. Alegria-Dulantziko Nordic Walking Zentroaren erabiltzaileak. Pertsona erabiltzaileak.
 - Hirugarren titulua. Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.
 - Laugarren titulua. Zerbitzuaren erabilera-arauak.
 - Bosgarren titulua. Alegria-Dulantziko Nordic Walking Zentroaren erabilera-arauak.
 - 1. kapitulua. Xedapen orokorrak.
 - 2. kapitulua. Nordic Walking Zentroaren erabilera-arauak.
 - Seigarren titulua. Zehapen-araubidea.
 - Zazpigarren titulua. Erreklamazio-liburua.
 - Zortzigarren titulua. Azken xedapenak.

ZIOEN ADIERAZPENEA

Udal honek, beste eginkizun batzuen artean, kirola sustatu behar du Dulantzi udalerrian, eta, horretarako, ondoko eginbehar hauek ditu:

- 1) Mota guztietako kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, dulantziar guztiek kirolerako gaitasuna garatu ahal izateko.
- 2) Kirol-instalazioak eraikitzea eta haien eraikuntza sustatzea, era berean, eremu libreak, besteak beste, kirol-eremu bihur daitezen arduratuta.
- 3) Herritar eta gizarte-talde guztiei kirola praktikatzeko aukera ematea.
- 4) Kirol-elkarteak sustatzea, intereseko ekimen sozialak diren aldetik.
- 5) Kirol lehiaketak eta ikuskizunak sustatzea eta babestea.
- 6) Eskola-adineko umeen gorputz- eta kirol-hezkuntzarako eta praktikarako jarduerak sustatzea.

Udalaren proposamenen artean, Nordic Walking Zentro bat ezartzea dago, ondoko xedeak betetzeko:

- Hedapena: Alegria-Dulantziko herritarren artean martxa nordikoa sustatzea.
- Turismo berdea: udalerritik kanpoko pertsonak hurbiltzeko bidea ematen duen erreminta sortzea, turismo berdea sustatuta.
- Antolaketa: aukerei ahalik eta etekin handienak ateratzeko, zentroaren funtzionamendu-sistema antolatzea.
- Dinamizazioa: gure udalerriko Nordic Walking Zentroan, osasunera bideraturiko dinamizazio-programa sortzea, martxa-mota honen praktika erreminta gisa erabiliz.
- Prestakuntza: kirol-praktika honen gaineko interesa duten pertsonen beharrezko ezagutza ematea, jarduera fisiko hau ahalik eta teknika handienarekin gara dezaten, emaitza onenak lortze aldera.

ARAUDI OROKORRA.

LEHENENGO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua-

Araudi honen xedea da Alegria-Dulantziko Nordic Walking Zentroa erabiltzeko baldintzak eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak arautzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean xedatutakoaren arabera.

2. artikulua-

Alegria-Dulantziko Udalak eskubidea izango du, Nordic Walking Zentroak behar bezala funtziona dezan, araudi honetan ezarritakoa argitu, aldatu edo garatzeko xedapenak nahiz ebazpenak emateko, bertan lan egiten duten pertsonen oharrak eta argibideak ezertan eragotzi gabe.

Araudi hau eta urteroko arauak (ordutegiak, prezio publikoak...) jendearen eskura egongo dira udalaren bulegoetan eta instalazioetako kontrol- eta harrera-lekuetan.

BIGARREN TITULUA. ALEGRIA-DULANTZIKO NORDIC WALKING ZENTROAREN ERABILTZAILEAK. PERTSONA ERABILTZAILEAK.

3. artikulua.-

Erabiltzaileak izan daitezke, Alegria-Dulantzin erroldatuta egon zein ez egon, dagozkion tasak ordaintzeko eta zerbitzu honetarako ezarritako araudia betetzeko prest dauden pertsona guztiak.

Alegria-Dulantziko Udalak urtero finkatuko ditu tasak.

4. artikulua.-

Tasak erabilera-eskaera burutzean ordainduko dira.

5. artikulua.-

Baimenak emango dira aurkeztutako eskaeren arabera, erabakitako epearen arabera, instalazioetako ordutegiak eta Alegria-Dulantziko Udalaren irizpide teknikoak kontuan izanik.

6. artikulua.-

Baimenak Alegria-Dulantziko Udalak antolatzen dituen ekitaldien mende egongo dira, eta jada baimendutakoren bat arrazoi horrengatik bertan behera utzi edo ordua aldatu behar bada, ezingo da erreklamaziorik egin. Dena den, gutxienez astebete lehenago jakinaraziko da egoera hori.

HIRUGARREN TITULUA. ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

7. artikulua.-

Erabiltzaileek ondoko eskubideak izango dituzte:

- a) Dagozkion prezio publikoak ordainduta, udal-zerbitzu hau erabiltzea, ezarritako orduetan eta egunetan.
- b) Egoki deritzeten erreklamazioak egitea.
- c) Araudi honen ale bat eskatzea.
- d) Indarrean dagoen legerian eta araudi honetan aitortzen zaizkien gainerako eskubideak.

8. artikulua.-

Abonatuen eta, oro har, erabiltzaileen betebeharrak honakoak dira:

- a) Zerbitzua erabiltzea, araudi honetan xedatutakoa eta instalazioetako langileen oharrak beteta.
- b) Utzitako materiala behar bezala erabiltzea. Arduragabekeriaz edo modu okerrean erabiltzearen ondorioz eragindako kalteak ekintzaren erantzulearen kontura izango dira.
- c) Arazoren bat badago, zerbait apurtzen bada, hutsen bat gertatzen bada edo araudi honetan xedatutakoa betetzen ez bada, udal-langileei horren berri ematea.
- d) Beste erabiltzaileen eskubideak errespetatzea.
- e) Ezarritako prezio publikoak dagokionean ordaintzea.
- f) NA erakustea, eskatzen zaienean, zerbitzura sartzeko.
- g) Indarrean dagoen legerian eta arautegi honetan ezartzen zaizkien gainerako betebeharrak.

LAUGARREN TITULUA. ZERBITZUAREN ERABILERA ARAUAK.

9. artikulua.-

Alegria-Dulantziko Nordic Walking Zentroaren xedea da martxa nordikoa praktikatzea eta berau sustatzea, inolako irabazi asmorik gabe.

10. artikulua.-

Zerbitzu hau erabiltzeko eskubidea dute, besteak beste, martxa-modalitate hau sustatzea xede duten pertsona, kirol-elkarte, klub, irakaskuntza-zentro eta bestelako erakundeek. Horretarako, Alegria-Dulantziko Udalak urtero onartzen dituen tasak ordainduko dituzte, hala behar denean.

11. artikulua.-

Zerbitzu hau erabiliko da:

1. Aldez aurretik zehaztutako ordutegian.
2. Berriazko programazioaren baitan, hala badagokio.
3. Udalak kasu berezietarako ezarritako baldintzak beteta.

12. artikulua.-

Erabiltzaileek unean-unean baino ez dituzte erabiliko Nordic Walking Zentroko informazio-gunea dagoen instalazioko armairuak. Erabiltzen bukatutakoan, armairua libre utzi beharko da.

13. artikulua.-

Arau orokor gisa, debekaturik dago udalaren instalazio guztietan animaliak sartzea. Arau hori aldi baterako indargabetu ahal izango da ezinbesteko arrazoiak daudenean edo kasu berezietan, Udalak onartuz gero.

BOSGARREN TITULUA. ALEGRIA-DULANTZIKO NORDIC WALKING ZENTROAREN ERABILERA ARAUAK.

1. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

14. artikulua.-

- a) Zerbitzu hau erabili ahal izango dute zentroko materialaren erabilera eskatzen duten norbanako erabiltzaileek (abonatuak edo abonatu gabeak), talde antolatuek, elkarteek, kirol-klubek, irakaskuntza-zentroek, erakundeek edo pertsonak.
- b) Kirol-interesa edo interes teknikoa badu, Udalak zerbitzu hau ixtea erabaki dezake, erresebatuta egon arren, aurretik behar adina denborarekin jakinaraziz gero.
- c) Alegria-Dulantziko Udalak ez du erantzukizunik izango beraren instalazioetan kirol-modalitate hau praktikatzearen ondorioz gerta daitezkeen istripuengatik.
- d) Erabiltzaileek ordaindu beharko dituzte arduragabekeriaren edo materiala edo instalazioak modu okerrean erabiltzearen ondorioz eragindako kalteak.
- e) Aldagelak erabiltzekotan, horretarako ezarritako ordua baino 20 minutu lehenago sartu ahal izango da. Erabiltzen bukatutakoan, gehienez ere 20 minutuz egon ahal izango da bertan.
- f) Udalak erabiltzaile guztiei, oro har, gomendatzen die osasun-azterketa egitea erakunde honek antolaturiko edozein jarduerari ekin aurretik

2. KAPITULUA. NORDIC WALKING ZENTROAREN ERABILERA ARAUAK.

15. artikulua.-

Informazio-gunea udalaren kiroldegian egongo da. Aparkalekuan, zentroaren gaineko informazio-panel orokorra dago, ibilbideei eta martxa nordikorako teknikari buruzko askotariko informazioa jasota.

- Urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra eta irailaren 12tik (data hau aldatu egin daiteke, udal-igerilekuak zein egunetan ixten diren) abenduaren 31ra arte, informazio-gunea udal-kiroldegiko bulegoan egongo da.
Ordutegia: 9:30etik 11:30era eta 16:30etik 22:30era.

- Igerilekuak irekita dauden denboraldian:
Ekainaren 1etik uztailaren 31ra eta irailaren 1etik igerilekuak itxi arte: goizez igerilekuetan eta arratsaldean kiroldegian.
Ordutegia: goizez igerilekuetan 11:00etatik 17:00etara eta arratsaldean kiroldegian 17:00etatik 22:00etara.
Abuztuaren 1etik 31ra: informazio-gunea igerilekuetan bakarrik egongo da, 11:00etatik 20:00etara.

Informazio-guneak honakoak ditu:

- Informazio-panela kanpoaldean.
- Informazio-orriak.
- Makila-mailegua.
- Dutxa, eskatzen duten pertsonentzat.

16. artikulua.-

Nordic Walking Zentroaren kontrolaren, maileguaren, informazioaren... ardura udal-kiroldegiko langileek izango dute, eta, igerilekuak irekita dauden denboraldian, instalazio honetako harrera-langileek.

Langile horien ardura honakoa izango da:

- 1) Informazio-orria ematea, ibilbideak eta makilen mailegu-zerbitzuaren araudia jasotzen dituenak.
- 2) Mailegu-sistemaren kontrola.
- 3) Eskatzen dutenei, dutxa erabiltzen uztea, erabilera kobratuta.

17. artikulua.-

Makilen mailegu-sistema: Alegria-Dulantzikoko Nordic Walking Zentroak makilak izango ditu, mailegu-sistema bidez uzteko.

Mailegu-sistema erabiltzeko, erabiltzaileek eskaera egin beharko dute, honela:

Materiala eskatzeko lekua:

- Urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra eta irailaren 12tik (data hau aldatu egin daiteke, udal-igerilekuak zein egunetan ixten diren) abenduaren 31ra, udal-kiroldegiko bulegoan.
- Udal-igerilekuak irekita dauden denboraldian, udal-igerilekuetan.

Material-mailegua erabiltzeko jarraibideak:

- Materiala erabiltzeko makila pare bakoitzeko euro 1 eta 3 euroko fidantza ordaindu beharko da. Fidantza itzuliko da materiala itzuli eta egoera berean egonez gero.
- Itzultzeko epemuga bete ezean, zuzenean fidantza galdu eta materiala itzularaziko da. Pertsona batek epemuga hirutan urratzen badu, ezingo du mailegu-sistema berriz erabili.

Materiala eskatzeko ordutegia:

- Urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra eta irailaren 12tik (data hau aldatu egin daiteke, udal-igerilekuak zein egunetan ixten diren) abenduaren 31ra, mailegu-ordutegia honakoa izango da:
 - Asteleheneetik ostiralera, jaieguna izan ezean:
 - Kiroldegiko ordutegia errespetatuta, makilak berauek erabiliko diren aurreko eguneko 20:00etatik aurrera eskatu ahal izango dira, eta erabiltzen diren eguneko 20:00ak baino lehen itzuli beharko dira.
 - Erreserba egun baterako baino ezin daiteke egin, eta, mailegu-sistema berriz erabili nahi izanez gero, prozedura bera jarraitu beharko da.
 - Larunbat, igande eta jaiegunetan:
 - Erreserba egun baterako edo astebururako egin ahal izango da. Bigarren kasuan, 2 euro ordaindu beharko dira alokairuagatik.

- Astebururako: eskaera ostiraleko 20:00ak baino lehen egin behar izango da, eta makilak asteke lehen egun baliiodunean itzuli beharko dira.
 - Egun baterako: hurrengo eguna jaieguna ez denean, eskaera aurreko eguneko 20:00ak baino lehen egin behar izango da, eta makilak hurrengo egun baliiodunean itzuli beharko dira.
 - Kiroldegia egun batzuk jarraian itxita dagoen denboraldian: eskaera aurreko eguneko 20:00ak baino lehen egin behar izango da, eta materiala lehen egun baliiodunean itzuli beharko da. Kasu honetan, alokairuaren prezioa euro 1ekoa izango da jaieguneko.
- Igerilekuak irekita dauden denboraldian:
 - Asteleheneetik igandera: Igerilekuko ordutegia errespetatuta, makilak berauek erabiliko diren aurreko eguneko 18:00etatik aurrera eskatu ahal izango dira, eta erabiltzen diren eguneko 20:00ak baino lehen itzuli beharko dira. Erreserba egun baterako baino ezin daiteke egin, eta, mailegu-sistema berriz erabili nahi izanez gero, prozedura bera jarraitu beharko da.
 - Asteburuko erreserba:
 - Eskaera ostiraleko 18:00ak baino lehen egin behar izango da, eta makilak astelehenean itzuli beharko dira.

18. artikulua.-

Dutxa: mailegua eskatzen dutenek dutxa-zerbitzua erabili ahal izango dute, tasen arabera urte bakoitzari dagokion zenbatekoa ordainduta. Kirol-txartela dutenek, berriz, dohainik izango dute zerbitzu hau.

SEIGARREN TITULUA. ZEHAPEN ARAUBIDEA.

19. artikulua.-

Araudi honetan ezarritako arauak ez betetzea zehapena dakarren arau-haustea da.

20. artikulua.-

1. Instalazioen arduradunek ahalmena dute jokabide desegokia duten pertsonen ohartarazteko, baita instalazioetatik kanporatzeko ere.

2. Hutsegiteek honako zehapenenen bat ekarriko dute:

- a) Ohartarazpena.
- b) Zerbitzua erabiltzeko eskubidea aldi baterako kentzea.
- c) Zerbitzua erabiltzeko eskubideak behin betiko kentzea.

3. Aipatu hutsegiteak aztertzeke orduan, kontuan hartuko dira erantzukizuna alda dezaketen inguruabar astungarriak, aringarriak edo salbuesleak. Nolanahi ere, akzio judizialei ekingo zaie Udalak arestian aipatu ekintzetan erantzukizun penala edo zibila sumatuz gero.

4. Gauzak apurtzeak, materiala galtzeak eta instalazioak modu okerrean erabiliz bestelako kalteak eragiteak, 2. puntuko zehapenez gain, isuna ekar dezakete, eta horren zenbatekoa kasu bakoitzean zehaztuko da.

ZAZPIGARREN TITULUA. ERREKLAMAZIO LIBURUA.

21. artikulua.-

Erabiltzaileen eskubideak bermatuta egon daitezen, erreklamazio-liburua izango dute eskura.

Erreklamazio-egileak orri bat beteko du: kopia bat beretzat gordeko du eta erreklamazioaren erantzuna idatziz jasoko du.

**ZORTZIGARREN TITULUA.
AZKEN XEDAPENAK.**

22. artikulua.-

Zenbait zerbitzu erabiltzeak artikulua osagarriak eta zabalagoak eragin ditzake, erabiltzaileek hobeto uler dezaten.

23. artikulua.-

Araudi honetan aurreikusi gabeko kasuak, hasiera batean, instalazioaren arduradunak ebatziko ditu. Gero, kirol-zerbitzuaren eskura jarri ahal izango dira, auzi berezia konpontzeko.

24. artikulua.-

Araudi honen aldaketak behar bezala argitaratuko dira, baita urte bakoitzari dagozkion tasak ere, ahalik eta hedapen handiena lortzearen.

Pertsona guztien ezagutzarako argitaratzen dena.

Alegria-Dulantzin, 2014ko abenduaren 17an
ALKATEA

Joseba Koldo Garitagoitia Odria

Izp.: Joseba Koldo Garitagoitia Odria